

495/2025 EBAZPENA, maiatzaren 5ekoa, Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearena Donostialdeko ESiko Mikrobiologiako Osasun Ataleko burua (Bakteriologia eta Erresistentzia Antibiotikoko Arloa) hautatzeko deialdian onartutakoen eta bazter utzitakoen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen osaera onartzeko dena.

AURREKARIAK

Donostialdeko ESiko zuzendari gerentearen otsailaren 19ko 226/2025 Ebazpenaren bidez, Donostialdea ESlan Donostialdeko ESiko Mikrobiologiako Osasun Ataleko buruaren (Bakteriologia eta Erresistentzia Antibiotikoko Arloa) lanpostu bat lehiaketa-sistemaren bidez betetzeko deialdia argitaratu zen (EHAA, 44. zk., 2025eko martxoren 5ekoa, eta BOE, 61. zk., 2024ko martxoaren 12koa).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2025eko apirilaren 25ean amaitu zen.

Donostialdeko ESiko zuzendariaren apirilaren 7ko 391/2025 Ebazpenaren bidez, prozesuan onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda onartu zen.

Aurrekoa ikusita, ebazpen honen bidez argitaratzen da onartutakoen eta bazter utzitakoen behin betiko zerrenda, eta Balorazio Batzordea izendatzen da.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendaren aurkako erreklamazioak aurkezteko epea amaitutakoan, Donostialdea ESiko zuzendari kudeatzaileak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzeko, eta, hala badagokio, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Ebazpen hori Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean argitaratzeko aginduko du.

Era berean, Balorazio Batzordearen izendapena argitaratu behar da.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetza Estatu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219 zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.— Donostialdeko ESlan Mikrobiologiako Osasun Ataleko buruaren (Bakteriologia eta Erresistentzia Antibiotikoko Arloa) lanpostua betetzeko deitutako lehiaketan onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda onartzea (I. eranskina).

Bigarrena. — Balorazio Batzordearen osaera onartzea (II. eranskina).

Hirugarrena.— Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Laugarrena.— Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Donostialdeko ESIko Zuzendaritza Gerentziari, hilabeteko epean, Ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Donostian, 2025eko maiatzaren 5ean.

Donostialdeko ESIko zuzendari gerentea
EB (2266/2022 Ebazpena, abenduaren 13koa)

Langileen zuzendaria,
MARIA PILAR SÁNCHEZ GARDUÑO.

I. ERANSKINA

DONOSTIALDEKO ESIko MIKROBIOLOGIAKO OSASUN-ATALEKO BURUAREN LANPOSTUA (BAKTERIOLOGIAREN ETA ANTIBIOTIKOEN ERRESISTENTZIAREN ARLOA).

Onartuen behin betiko zerrenda:

- Miriam ALKORTA GURRUTXAGA.

Baztertuak:

- Inor ez

Baztertzeko arrazoia:

- 1- Ez da langile finkoa eskatutako kategorian.
- 2- Ez dago jarduneko zerbitzuan eskainitako lanpostuaren lanbide-talde bereko kategorian.
- 3- Ez du titulazioari buruzko eskakizuna betetzen.
- 4- Ez du lan-esperientziari buruzko eskakizuna betetzen.
- 5- Eskabidea epez kanpo aurkeztu da.
- 6- Bestelakoak.

II ERANSKINA

DONOSTIALDEKO ESiko MIKROBIOLOGIAKO OSASUN-ZERBITZUKO BURUAREN LANPOSTUA (BAKTERIOLOGIAREN ETA ANTIBIOTIKOEN ERRESISTENTZIAREN ARLOA).

BALORAZIO BATZORDEA

Batzordeburua:

Titularra: Sara Arévalo Lobera andrea (Donostialdeko ESiko zuzendari medikoa)
Ordezkoa: María Eugenia Alkiza Eizagirre andrea (Bidasoako ESiko zuzendari medikoa)

Lehenengo batzordekidea:

Titularra: Mercedes Sota Busselo andrea (Mikrobiologia eta Parasitologiako KKUko burua Donostialdeko ESIn)
Ordezkoa: María Milagrosa Montes Ros andrea (Donostialdeko ESiko Mikrobiologia eta Parasitologiako Osasun Ataleko burua)

Bigarren batzordekidea:

Titular: D. Diego Vicente Anza jauna (Jefe de Servicio Sanitario de Microbiología y Parasitología en OSI Donostialdea).
Suplente: D. Andrés Canut Blasco jauna (Facultativo Especialista Médico Técnico en Microbiología y Parasitología en OSI Araba).

Hirugarren batzordekidea:

Titularra: José María Marimón Ortiz de Zárate jauna (Donostialdeko ESiko Mikrobiologia eta Parasitologiako Osasun Ataleko burua).
Ordezkoa: Leyre Mónica López Soria andrea (Enkarterri-Gurutzetako ESiko Mikrobiologiako atalburua).

Laugarren batzordekidea (IVAPek proposatua):

Titularra: José Luis Diaz de Tuesta del Arco jauna (Bilbo-Basurtu ESiko Mikrobiologiako Osasun Zerbitzuko burua).
Ordezkoa: Mikele Macho Aizpurua andrea (Barrualde-Galdakao ESiko Mikrobiologia eta Parasitologiako mediku espezialista)

Idazkaria:

Titularra: María Pilar Sánchez Garduño andrea (Donostialdeko ESiko Pertsonen zuzendaria)
Ordezkoa: María Estrella Garrido Manzano andrea (Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko Pertsonen zuzendaria).